

deba berri

Debako udal aldizkaria - Revista municipal de Deba



Abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna

Pausoz pauso, urratsez urrats

© Argitaratzailea/Edición: Debako Udala
 Egilea/Realización: Kaioa a.s.p.
 Ale kopurua/Ejemplares: 3000
 L.G./D.L.: SS-918-2012

Udal honek oso argi izan du, eratu zenetik, herritarrek jakitun izan behar dutela udaleko gorabeheraz: zertan ari den, zein proiektu dituen eskuartean eta nolakoa den egoera orokorra.

Azken batean, Udala herritarren zerbitzura egon behar duen erakunde bat baino ez baita eta. Herritarrek informazioa jasotzea ezinbestekoa da, helburu horri erantzuteko bitarteko bat da udal aldizkari hau.

Herritarrek kezka eta iradokizunak udalera helarazteko, eta ohiko bidez gain, iradokizun kutxa jarri dugu udaltzaingoa egoten den bulegoan eta laster martxan egongo den udaleko web-orrialde berrian ere aukera izango duzue horretarako.

Udala bere egitasmoak lantzen ari da baina, aldi berean, ditugun proiektu guztiak aurrera eramateko, zailtasun handiak ditugu.

Krisi hitza eguneroko ogi bihurtu zaigu eta, tamalez, ez da hitz hutsala, eragin zuzena eta larria baitu gure eguneroko bizitzan, eta baita Udal honen egunerokoa ere.

Idea bat egite aldera, Udal honen aurrekontuko sarrera arruntak, azken lau urtetan, 7,1 milioi eurotik 6 milioi eta erdi euro ingurura jaitsi dira, eta horri gehitu behar diogu, denbora horretan, gastu arruntak izan duten igoera. Udalaren diru sarrera arruntan erdia inguru Foru Aldundiak bideratzen duena da, eta beste erdia, gutxi gorabehera, Udalak zerga bidez biltzen duena.

Foru Aldundiari dagokionez, jasotzen duenaren ehuneko bata bideratzen du udaletara, eta jasotzen duena murriztu egin denez zuzenean eragiten digu; beraz, udalak jasotzen duena ere murriztu egin da, besteak beste, jarduera ekonomikoaren eta obren gaineko zergak jaitsiera nabarmena pairatu duelako.

Honek proiektu batzuk atzeratzea eragin digu, baina, hala ere, lanean dihardugu herritarrei ahalik eta zerbitzu onenak eskaintze aldera, eta ez daukagu inolako zalantzarik, guztion artean eta borondate onarekin aurre egingo diogula egoerari, herritar gehiengoaren beharrei erantzun egokia emanaz.



Desde que se constituyó esta Corporación, se ha tenido claro que los habitantes tienen todo el derecho a estar informados de todo cuanto acontece en el Consistorio: derecho a saber lo que se está haciendo, a los proyectos existentes y derecho también a saber cuál es la situación en general.

Consideramos que el Ayuntamiento no es más que una institución al servicio de las personas y para ello creemos imprescindible que cada una de esas personas reciba la información y, a la vez, disponga de los medios adecuados para hacer llegar al Ayuntamiento sus opiniones y sugerencias.

Esa es precisamente la razón de esta revista y de la nueva página web que a partir de enero estará en funcionamiento: servir de conducto para que cualquiera pueda hacer llegar sus opiniones a este Ayuntamiento.

Concretando sobre el tema de la información y de la situación económica actual, creemos necesario que la ciudadanía sepa que los ingresos corrientes de este Ayuntamiento han descendido, aproximadamente, desde los 7,1 millones de euros a 6.500.000 euros en los últimos cuatro años. A ello debemos añadir la subida de los gastos corrientes durante ese periodo.

Aproximadamente la mitad de los ingresos corrientes del Ayuntamiento corresponden a la transferencia que realiza la Diputación Foral y la otra mitad a lo que recauda el Ayuntamiento vía impuestos.

La Diputación destina a los ayuntamientos un porcentaje de lo que recauda, pero como la recaudación ha descendido esto nos afecta directamente. En lo que respecta a la recaudación de nuestro Ayuntamiento, ésta también ha descendido, entre otras cosas, debido a la disminución de ingresos en el concepto de Impuesto sobre Actividades Económicas y permisos de obras.

En resumen, todo ello nos ha obligado a tener que retrasar determinados proyectos; pero, aún así, seguimos trabajando con el objetivo de ofrecer los mejores servicios posibles a la ciudadanía. No tenemos ninguna duda de que con buena voluntad, entre todos seremos capaces de hacer frente a esta situación, satisfaciendo las necesidades de quienes habitamos en este pueblo.

Beldur Barik Lehiaketa Deban

Bigarren urtez, Deban, Beldur Barik Lehiaketa antolatu du Udalak. Lehiaketa 12-26 urte bitarteko gazteei zuzendua dago eta bertan bi kategoria daude. Lehenengoan 12-17 urte bitarteko gazteak parte hartu dezakete eta bigarrean 18-26 urte bitartekoak.

Ekintza honen helburu nagusia “emakumeen kontrako diskriminazioak ikustarazten dituzten adierazpen artistikoak saritzea eta bultzatzea; eta errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzunkidetasunean eta indarkeriaren kontrako konpromiso sendoa oinarritutako jarrerak baloratzea eta saritzea” dira.

Lau proposamen jaso dira aurtan, 3 proposamen 1. kategorian (12-17 urte) eta proposamen bakarra 2. kategorian (18-26 urte). Lehiaketaren sariak banatzeko helburuarekin, azaroaren 22an arratsaldeko 19:00etan Kultur Elkartearen Aretoan topaketa antolatu zen. Epaimahaia, Debako berdintasun batzordeak osatu zuen eta bertako kide batek banatu zituen sariak. Epaimahaikideek aurkeztutako proposamen guztiak kalitate handikoak zirela aipatu zuten eta erabakia hartzea ez zitzaizela batere erreza gertatu esan zuten.

Lehenengo kategorian aurkeztu ziren proposamenak; “Ezberdinak berdintasunean”, “Gelditu”, eta “Garai berria Aire Berriak” izan ziren. Hauen artean **“Ezberdintasunak berdintasunean”** lanari esker, Debako gaztelekuko gazteek 250 euroko saria jaso zuten.

Bigarren kategorian proposamen bakarra jaso zen; hala ere bideoak zuen kalitatea eta transmititzen zuen indarra zela eta, epaimahaiak saritzea erabaki zuen. Horrela 2. kategoriako **“Ez utzi itzaltzen”** proposamenak 250 euroko saria jaso zuen.

Nere Oria eta Ane Arrizabalagak “Ez utzi Itzaltzen” lanari esker Debako 2. kategoriako saria lortzeaz gain, EAEn antolatu zen Beldur Barik Lehiaketako publikoaren bozka bidezko sariaren irabazle izan ziren. Lehiaketa honetan 300 euro jaso zuten.

Topaketara gazte asko hurbildu ziren; eta proposamen guztiak ikusi eta sariak banatu ondoren, bertara hurbildu ziren guztiak luntxa dastatzeko aukera izan zuten.

Berdintasun batzordetik parte hartzea eskertu eta hurrengo urtean parte hartzera animatzen zaituztegu.



1. kategoriako irabazleak.



2. kategoriako irabazleak.

Indarkeria matxistari aurre egiteko Udaleko langile eta teknikariei genero indarkeriaren inguruko formazioa

Berdintasun politika publikoen ardatz nagusietariko bat, emakumeenganako indarkeriari aurre egitea da. Emakume eta gizonen artean dagoen ezberdintasunen adierazpenik larriena, indarkeria matxista da. Hau dela eta, 2009 urtean Debako udalean, protokoloa garatu zen; eraso sexualen eta tratu txarren biktima diren emakumeen arretan parte hartzen duten zerbitzuen arteko koordinazioa eta esku hartzea hobetzeko helburua zuelarik.

Indarkeria matxistari aurre egiteko udalean osatua dagoen lantalde teknikoa indartu, funtzionamendua hobetu eta arreta protokoloa bultzatzeko, protokoloan parte hartzen duen lantaldeari formazio saio batzuk eskainiko zaizkio.

Formazio saioak, genero indarkerian aditua den aholkularitza batek eramango ditu aurrera: “Sortzen Consultoría S.L.”k. Hau 2013ko urtarrila eta otsailean egitea aurreikusten da.

Abenduak 3, euskararen nazioarteko eguna



Euskararen Nazioarteko Eguna zela eta, flashmoba antolatu zuten Kuadrillategik eta Udalak elkarlanean. Flashmoba ekintza antolatu bat da non, jende multzo txiki-handi bat leku publiko batean elkartzen den zerbait egiteko. Kasu honetan, Esne Beltzak-en “Euskaraz Bizi nahi dut” kantua hartu eta herritar guztiek egiteko moduko

koreografiatxo bat proposatu zuten.

Helburuak honakoak ziren:

1) Lehenik eta behin, abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Egunaren garrantziaz jabetzea eta euskararen aldeko aldarria egitea.

2) “Euskaraz bizi nahi dut” eskubidea, desioa, ilusioa, gogoia,... gizarteratzea.

3) Ahalik eta herritar gehienen parte hartzea lortzea.

Parte hartzea lortzeko gonbidapenak banatu zizkieten herriko eragile guztiei: euskalgintzako eragileei (ikastetxe,

euskaltegi, euskara elkarte) ez ezik, gainerako kultur eta kirol elkarteei ere bai. Norbanakoengana iristeko, berriz, hedabideak, ikastetxea, Zuhatzaren Berriketan aldizkaria eta kartelak erabili ziren.

Ekimenean parte hartzeko eta koreografia ikasteko bi modu proposatu zituzten: zuzeneko entseguak izan ziren bide bat (bi ikastetxeetan zein Aldats frontoian egindakoak) eta Debako web orrian eta youtuben zintzilikatutako bideoa bestea.

Eguraldia ondo baino hobeto portatu zen ekimenaren egunean, eta plaza eguzkitsu agertu zitzaigun dantza egiteko garaian. Haur eta gazte, guraso zein elkarteetako ordezkariak gogotsu aritu ziren eta umore ona eta, batez ere, alaitasuna nabarmendu genitzake egun hartatik. Kontua ez baitzen, hainbeste, dantza ondo egitea; euskararen inguruan elkartzea baizik, eta elkartuz ondo pasatzea, harremanak egitea eta poza eta gogoia transmititzea.

Hizkuntza komunitatea berregiteko, taldea osatzeko, sendotzeko, autoestimuan sakontzeko... ekimen bat gehiago.

Badira erronkak, handiak oraindik, helburu horri begira; baina bagoaz. Pausoz pauso, urratsez urrats.

EUSKARAZKO JOLAS ETA KANTUEN IKASTAROA

Debako Udalak gurasoentzako euskal jolas eta kantuen ikastaroa antolatu ohi du bi urtetik behin. Gurasoei euren seme-alabentzako aproposak diren jolas eta kantua irakatsi eta, jolas horien bitartez, euskarazko harreman afektiboak sendotzea da ikastaroaren helburu nagusia;

Jolasak ezinbesteko garrantzia daukalako haurren garapenean eta hizkuntzaren normalizazioaren eremuan. Jolastuz eta abestuz, haurrek zenbait gaitasun eta trebezia garatzen dituzte eta, gozatzen duten bitartean, hizkuntza horrekiko motibazioa, ezagutza eta erabilera areagotzen da.

Baina askok ez dute jolas eta abestiak euskaraz ikasteko aukerarik izan. Ikastaro honen bitartez, gurasoek edota familiako kideek, euren haurrekin jolasteko eta abesteko euskarazko baliabideak eskuratu dituzte. Horrela, esku jolasak, soka saltoan aritzekoak, lo kantak,... ikasi dituzte aurten ibili diren 8 familietako partaideek.

Ikastaroa elebrietan burutu da. Euskaldunei ez ezik, gazteleradunei ere euskarazko baliabideak eskaintzea garrantzitsua dela uste dugulako. Euskaraz ez dakitenei gure hizkuntzara hurbiltzeko bideak eta moduak eskaini nahi dizkiegu horrela eta, kasu honetan bereziki, seme-alabekin euskaraz jolasteko aukera zabaldu.

Berritasun modura, aipatzekoa da, aurten, Deban sortzearen “Kolare anitz” aisialdi taldeak eman duela ikastaroa, beti bezala, Luzaro ikastetxeak lagatako getetan.



SANTIAGO BIDEKO ERROMESEK 2014ean aterpetxe berria izango dute Deban

Mendeetan zehar ibilbide ezezaguna izan bada ere, urtetik urtera haziz joan den ohitura da Done Jakue bidea kostako bidetik egitea. Deba bidean estrategikoki kokatua dago eta, egun, kostako bidea egiten duten erromes gehienek geldialdia egin ohi dute gurean. Zenbaitentzat bidaia espirituala da; beste batzuentzat, aldiz, kirol bidaia. Arrazoiak arrazoi urtetik urtera gehiago dira motxila eta mendiko botak hartu eta bideari ekiten diotenak.

Gure herriaren izen eta izaera nazioartean zabaldu eta ezagutarazteko erreminta paregabea da Done Jakue bidea. Debako aterpetxetik, 2012an, dagoeneko, 6.786 erromes pasa dira eta hauek ere eragina dute gure ekonomia txikian.

Zalantzarik gabe bidean gauden herriontzako ezin galdu dezakegun aukera da Done Jakue bidea. Herriko ekonomian gero eta eragin esanguratsuagoa du eta denda, taberna, jatetxe eta ostatuentzat krisialdia leuntzeko balio duen diru iturrietako bat bilakatu da.

Debako Udalak, Debako Santiago bideko elkarteak eta Eusko Trenak 2010ean hitzarmen baten bidez **geltokian aterpetxea egitea adostua dago** eta ordutik egitasmoaren finantzaketa lortzeko gogor lan egin dugu eta aurren Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 198.049,66€ko diru laguntza onartu du proiektua gauzatzeko. Exekuzio proiektua bukatzeaz dago eta lanak 2013-2014 urteetan zehar egingo dira.

Debako Santiago Bideko Lagunei esker, 2004. urteaz geroztik, herrian erromesentzako aterpetxea edukitzeak indartsu kokatu gaitu bidean eta dudarik gabe erabakigarria izan da azken urteetako erromes kopuruaren gorakadan.



NUEVO ALBERGUE DE PEREGRINOS

En 2014 los peregrinos jacobeos dispondrán de un nuevo y céntrico albergue en Deba.

En el año 2010, el Ayuntamiento, la Asociación de Amigos del Camino de Santiago en Deba y EUSKOTREN firmaron un convenio para la cesión de la primera y segunda planta de la estación del ferrocarril, con el objeto de instalar en ellas un albergue de peregrinos.

Tras muchas negociaciones, se llegó a un acuerdo con dicha empresa. Para las obras de adecuación, el Ayuntamiento solicitó una ayuda al Gobierno Vasco, quien a través del Departamento de Cultura, ha concedido una subvención de 198.049,66€.

Parte-hartzea herriko kirol elkarteekin

Debak duen altxorrik handienetakoa jendarte mugimendua da zalantzarik gabe. Mugimendu eta elkarte desberdinetan antolatuta, herritar asko eta asko dira herri hobeko baten alde euren denbora eta esfortzua eskaintzen dutenak. Herritarrek taldeetan antolatuaz, eragite ahalmen handiko kolektiboak osatzea ahalbidetu dute.

Elkarlanak, gauzak egiteko gaitasuna biderkatu egiten duela sinetsita gaude. Eta bide horretan, Udalak dituen bitartekoak kirol elkarten esku jarri nahi ditugu. Horregatik eta horretarako, kirol elkarte, udaleko teknikari eta herritarrei zabalduetako parte hartze prozesua diseinatu eta burutu dugu.



Helburu argi batzuekin:

- 1.- Herriko kirolaren diagnostikoa egitea.
- 2.- Osioko eraikinaren funtzionamendua zehaztea.
- 3.- Elkarteak modu koordinatuan aritzeko antolamendua zehaztea.

Horrela, urria-azaroan prozesu parte hartzaile emankorra gauzatu da. Deba-ko kirolaren inguruko diagnostikoa, hutsuneak betetzeko egitekoen zerrenda edota elkarlanerako gunearen diseinua garatu dira besteak beste. Osioko eraikinean dauden kirol elkarten funtzionamendua eta eraikinerako araudia ere osatu dira.

Prozesuan parte hartu duten ia guztiak maila batean edota bestean kirol esparruan lan egiteko konpromisoa azaldu dute. Horrela, diseinatu eta erabaki duten elkarlanerako gunea urtariletik aurrera jarriko da martxan.

POR UN TRABAJO COORDINADO ENTRE LAS ENTIDADES DEPORTIVAS MUNICIPALES

“ Las entidades deportivas locales sienten la necesidad de realizar un trabajo conjunto y conexionado. Para ello se ha diseñado un proceso de trabajo en común entre dichas entidades, los técnicos municipales y la ciudadanía, con tres claros objetivos:

- La realización de un diagnóstico de la situación del deporte en nuestro municipio.
- Establecer unas normas para el funcionamiento del edificio de propiedad municipal, situado en Osio.
- Concretar un modo de funcionamiento coordinado entre todas las entidades deportivas.



KIROL MAHAIAREN HELBURU OROKORRA:

Kiroletako eragile guztien parte hartzea eta ikuspegia barneratuz, Debako kirol proiektua osatu eta bultzatzea.

- **Mahai honen eraketa:** udalaren kiroltako ordezkari politikoak, udaleko kirol eta euskara teknikariek, kirol elkarteetako ordezkariak eta interesa daukaten herritarrek parte hartu ahalko dute .

- **Funtzio hauek zehaztu zaizkio mahai horri:**

- Parte hartze prozesuari jarraipena ematea, bertan atera diren egitekoak gauzatzuz.
- Parte hartze prozesuan egindako diagnostikoan nabarmendu diren hutsuneak betetzea.
- Elkarteak modu koordinatuan aritzeko modua erraztea.
- Udal, elkarte eta herritarren arteko harremanak sendotu eta elkarlana sustatzea.
- Parte hartu nahi duten norbanakoei lanerako gune bat eskaintzea.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea. Elkarlanerako gunearen sorreratik emakumeen parte hartzea bereziki bultzatuko da.
- Euskara sustatzea; elkarlanerako gunean erabiliko den hizkuntza nagusia euskara izanez.

Joan den hilaren 17an aurkeztu zitzairen herritarrei prozesu hori guztia; baita lan horretatik ateratako emaitzak ere. Agirre Jauregian bildu ziren prozesuan parte hartu duten eragile guztiak eta gaian interesa duten bestelako herritar eta zaletuak.

Udalak hartu zuen kirol mahai hori dinamizatzen hasteko ardura. Gabon oporren bueltan hasiko da martxan, gorgo aipatutako helburuei begira, inplikatu nahi duten guztiei parte hartzeko gonbitea luzatzen dizuegu.



Objetivo general de la “Mesa del Deporte”

El objetivo general de esta “Mesa del Deporte” es la participación de todos los agentes con el fin de establecer e impulsar un proyecto deportivo a nivel municipal.

Para la consecución de sus objetivos se va a realizar una especie de “decálogo”, con algunas pautas como las que a continuación se detallan:

- 1.- Darle continuidad al proceso participativo, para llevar a cabo los puntos acordados.
- 2.- Responder a las carencias detectadas en el diagnóstico.
- 3.- Facilitar un “modus operandi” coordinado entre las entidades.
- 4.- Fortalecer las relaciones entre el Ayuntamiento, las entidades y la ciudadanía.
- 5.- Ofrecer un área de trabajo a todo aquel que desee entrar en el proceso.
- 6.- Fortalecer la igualdad entre hombres y mujeres, impulsando la participación de la mujer.
- 7.- Impulsar el uso del euskera, siendo la lengua predominante en el proceso de participación.

Estas son algunas de las pautas que deseamos sirvan para impulsar un buen proyecto de cara al futuro del deporte en nuestro municipio.



Debako Udalaren
TXOSTEN EKONOMIKOA

Informe económico del Ayuntamiento de Deba

2012ko abendua - Diciembre 2012

1. EGOERA EKONOMIKOA

Debako udalak, gardentasuna bere jardueraren oinarri izanda, ezinbestekoa deritzo herritarrek udalaren egoera ekonomikoaren jakitun izatea, batez ere bizi dugun krisi sakon honetan, guztiok informazio ahalik eta osatuena edukitzeko.

2011 urte bukaeran, udalak bilera ezberdinak egin zituen, udalaren egoeraren berri herritarrei emateko helburuarekin, bertan 2012ko aurrekontuak zeintzuk izango ziren ere azalduz.

Urtebeteko ibilbide honetan, Debako udalak, herritarrei eskainitako zerbitzuak mantentzeko eta gastu sozialari eusteko ahalegina egin du.

Bestalde, aurre egin behar izan die, aurreko udal gobernuak herritarrekin hartutako konpromezu batzuei, honek inbertsio ezberdinak egitera behartu gaituelarik, beste batzuk itxoi tera kondenatuz.

Beraz ezinbesteko da, 2012ko balantze ekonomikoa egitea, guztiok ezagutzeko aukera izan dezagun.

• DIRU SARRERAK

Sarrera arruntak, zerga zuzenenak eta tasak, aurreikuspena egokia izan da.

Bigarren kapituloa, instalazio eta obrei dagokiona da. Ez dira aurreikusitako kopuruak oraingoz bete. Elizburuko etxebizitzaren eraikitze lizentziaren zergarekin betetzea aurreikusten da, eta hau abenduan edo urtarrian kobratuko da.

Egoera ekonomikoaren eraginez, Foru Aldundiak aurreikusitako diru sarrerak ez lortzea eta era berean, herriei egiten zaien ekarpena gutxitzea ekarri du.

Ondorioz, 2013 urtean, 151.735€ bueltatu beharko diogu Foru Aldundiari.

Madriki ordaindu beharreko kupoaren eraginez, Debak 78.299€ ordaindu beharko ditu. Oraindik noiz ordaindu beharko dugun ez dakigularik.

Kapitaleko sarreretan berriz, Berasaluze plazako aparkalekuei dagokiona ezin izan da gauzatu, espediente honek hasieratik izan duen metro eta finken akatsak zuzentzeak denbora luzatzea ekarri duelako, eta 2013 urtean gauzatzea aurreikusten da.

Azkenik, hirigintzako aprobetxamendu ezak, babestutako etxebizitzentzako diru kopururik ez lortzea ondorioztatu du, gastuetako 6. kapituloan ikusi daitekeen bezala.

SARRERAK	Aurrekontua	Kitapen aurreikuspena
OPERAZIO ARRUNTAK	6.539.846,00 €	6.499.613,11 €
1.Zergak	1.884.000,00 €	1.944.000,00 €
2.Eraikuntza, instalazio eta obra gaineko zerga	151.220,00 €	25.987,11 €
3.Tasak eta bestelako sarrerak	1.058.844,00 €	1.083.844,00 €
4.Trasferentzia arruntak	3.389.589,00 €	3.389.589,00 €
5.Ondareen gaineko sarrerak	56.193,00 €	56.193,00 €
KAPITALEKO OPERAZIOAK	288.359,00 €	2.000,00 €
6.Inbertsio realen besterenganaketa	286.359,00 €	0,00 €
7.Kapitaleko trasferentziak		
8.Aktibo finantzieren aldea	2.000,00 €	2.000,00 €
9.Pasibo finantzieren aldea	0,00 €	0,00 €
SARREREN LIKIDAZIO AURREIKUSPENA	6.828.205,00 €	6.501.613,11 €

• **GASTUAK**

Gastu arruntetan, aurreikusitakoa kontrolatzea lortu da, BEZ-aren igoerak eragina izan duen arren.

Kapitaleko gastuetan jasota geratzen dira, baita, udalak urtero, dituen maileguen amortizazioak, 343.000€ izan direnak

Esan bezala, aurretik hartuta zeuden konpromisoei erantzunez, espero etziren inbertsio edo gastu batzuk egin behar izan dira, 51.541€ inbertituz San Roke kaleko fatxada eta Osioko etxebizitza baten hobekuntzetan. Bestalde aurreikusi gabeko beste 10.237€ Artzabalgo lubiziaren konponketan gastatu dira. Guzti hauek udal aurrezkiarekin egin dira.

Azaldu behar da baita, 2012an, udal honek, 2009 eta 2011 urteko Foru Aldundiaren ekarpenen desbiazioa ordaindu behar izan duela, guztira 623.010,96€ izan dira eta hauek ere aurrezkiarekin egin dira.

Hala ere, aurreikusitako inbertsio batzuk burutzea lortu da; argiteriko hobekuntzak, Gaztetxeko hobekuntzak, Agirre jauregiko ganbara eta armairuak, Osio kaleko lokalen obrak, landa eremuko bide ezberdinen konponketa, eta Geoparkeko bulegoaren instalakuntza, guztia 44.199€ izan dena.

GASTUAK	Aurrekontua	Kitapen aurreikuspena
OPERAZIO ARRUNTAK	6.204.816,00 €	6.092.036,10 €
1.Lagileen gastua	1.890.070,00 €	1.838.664,58 €
2.Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak	3.396.816,52 €	3.396.816,52 €
3.Gastu finantzieroak	86.555,00 €	76.555,00 €
4.Transferentziak	831.374,48 €	780.000,00 €
KAPITALEKO OPERAZIOAK	623.592,00 €	389.199,00 €
6.Inbertsio realak	284.592,00 €	44.199,00 €
7.Kapitaleko trasferentziak		
8.Aktibo finantzieroen aldea	2.000,00 €	2.000,00 €
9.Pasibo finantzieroen aldea	337.000,00 €	343.000,00 €
GASTUEN LIKIDAZIO AURREIKUZPENA	6.828.408,00 €	6.481.235,10 €



• UDAL AURREZKIA

2011 urtea, 1.573.967,65€-ko aurrezkiarekin bukatu zen. Hortik, 2012 urtean esan ditugun 2009 eta 2011 urteko Foru Aldundiaren ekarpenen 623.010,96€-ko desbiazio negatiboa eta aurreikusitako gabeko 61.778€-ko inbertsioak (San Roke fatxada, Osio etxebizitza, Artzabal Iubizia) ordaindu behar izan ditugu, altxortegia murriztuz.

2013 urtean, 2009ko beste 250.000€ itzuli beharko dira Foru Aldundira.

2012 urteko likidazioan egon den emaitza positiboa aurrezkira joango da, eta urtean Foru Aldundiaren ekarpenetik suertatu den desbiazioa ere aurrezkitik ordainduko da.

Guzti honek dudarik gabe eragin handia izango du udaletxeko aurrezkian.

• ONDORIOAK

Ondorioz, eta urteko balantzean, esan behar da, urteko sarrera propioen aurreikuspena zuzena izan dela, zerga eta tasei dagokiona, eta gastu arruntean BEZ-aren igoeraren eragina kontrolatzea lortu dela. Hala ere, honek ez du aurrezki handirik sortzen eta horrek inbertsioak ahalbidetzea mugatzen du.

Hobetzeko bidean udalaren estrategia bi ekimenetan finkatzen da; alde batetik, sarrera arruntak handitzea, zerga eta tasak era justuago batean, eta bestetik, gastu arrunten banaketa eta kudeaketa egoki bat burutzea.

Kezka sortzen dute udalak beste administrazio batzuetatik jasotako laguntzek eta ekarpenek, eta nola ez, ditugun auziak.

2013 urteko egoera ez da xamurra aurreikusten, eta aurrekontuak egiterako orduan udal honek erabiliko dituen irizpideak hurrengoak izango dira:

- Udalaren sarrera arruntak handitzea, udal tasak eta zergetan, “gehien duenak, gehiago lagunduz”.
- Gastu arrunten kudeaketa optimizatzea.
- Eskubide sozialak bermatzea.
- Gure ondareen balioa indartzea, (euskara, kultura, geoparkea...).
- Ezinbestekoak diren inbertsioak burutzea, kanpo finantziarioa bilatuz.



2. ORDENANTZA FISKALAK

(udalaren web-ean)

2013 urterako Ordenantza fiskalak, azaroaren 8ko osoko bilkuran onartu ziren aldeko 9 bozkarekin.

Zerga eta tasak lantzerako orduan, berrikusi, eta igoerak era justu batean emateko helburuarekin egin dira, zerga eta tasa gehienetan %3,4eko KPIko igoera aplikatuz. Hala ere, badaude hau gainditu duten batzuk, BEZ-aren igoerak ekarri duen desfasea kontutan hartuz, zerbitzu kostua orekatzeko helburuarekin.

Hala ere, berrikuntza bezala, zerga batzuetan hobariak planteatu dira.

ZERGA

• Ondasun higiezinaren gaineko zerga (IBI)

- %3,4eko KPI igoera.
- **%50eko hobaria**, obran dauden obra amanera arte.
- **Hobariak**, familia ugariantzat, eta errentaren eta etxearen balioaren arabera, beti ere etxebizitza

balore kastrala < 180.304 €			
	0-24.000 €	24.000 -50.000 €	50.000-75.000 €
3 seme-alaba	90%	40%	0%
4 seme- alaba	90%	60%	25%
5 seme-alaba edo gehiago	90%	80%	50%

- Etxebizitza hutsei %75eko erretegia.

- Etxebizitza hutsak alokairuan merkaturatzea
- Erroldatu gabeko jendea erroldatzea
- Iruzur fiskala azalaratzea
- Ondasun higiezinaren gaineko zergan hobariaren bat gozatzen duenak
- Ostaua ematea duten jardueren atxikitakoak
- Errentan emateko erakunde publiko baten esku jarritakoak
- Antolamenduz kanpo, erortzeko zorian aitortuak eta hirigintza kudeaketan daudenak.
- Baserri hutsak
- Zahar etxeetan erroldatuta dauden hirugarren adineko pertsonen etxebizitzak eta menpekotasun justifikatua edukiz familiarrekin erroldatutakoak.
- Modu jarraituan lanbide edo merkataritza jardueretarako erabiltzen direnak.

• Eraikuntza, instalazio eta obraren gainekoa

- Ez da igoerarik emango, obra haundientzat % 5ko tasa eta obra txikientzat, %1,5eko tasa mantenduz.
- Ustialekuari lotutako eraikuntzak eta etxebizitza sozialen eraikinen birgaiketak **%90eko hobaria**

- **Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga**

- Hemendik aurrera miloi batetik arrerako fakturazioa duten jarduerak ordianduko dute, orain arte bi milioi zen. Hau aurreikusita koefizientean ez da igoerarik eman.

- **Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga**

- Orohar %3,4 KPI igoera aplikatu da.
- Zaldi potentzia gehiagoko turismo eta zilindrada gehiagoko ziklomotoretan, %5, %7,5 eta %10 aplikatu da.
- 25 urtetik gorako ibilgailuen salbuepena ezabatu egin da, eta bere ordean, ibilgailu elektrikoentzat %95eko hoberia ezarri da. Ingurumeneko irizpizpideak oinarri hartuta.
- Nekazal traktoreak salbuetsita daude.

- **Hiri izaerako lurren balio-gehitzearen gaineko zerga (plusbalia)**

- %2ko igoera, %12an geratuz zerga tipoa.

TASAK

- **Jabari publikoaren okupazioa**

- Orokorki % 3,4eko KPI igoera aplikatuko da.
- Mahai eta aulkien ezartzea, "beladoreak" %10eko igoera aplikatuko da inguruko herrietako baldintzetara egokituz.

- **Zerbitzu publikoak eta jarduerak**

- Orokorki %3,4eko KPI igoera aplikatuko da.
- Polikiroldegian BEZ-aren igoera %13 aplikatuko da.
- Udalak tasak edukiko dituen bi zerbitzu berri eskainiko ditu
 - Agirre jauregiko ispiluen gelaren erabilpen pribaturako, 80€
 - Hileta zibilak egiteko espazioaren erabilpenerako, 40€
 - Terrenoen segregazio eta agrupazioetarako lanak, 0,25€/m² 426,25€-ko topearekin.

- **Eguneko zentruko zerbitzuak**

- Zerbitzu ezberdinen prezioak aztertuta, BEZ-aren eragina aurreikusita, eta erabiltzaileak kontutan hartuta aurreikusitakoak dira.
- PODOLOGIA %3,4ko igoera.
- ILEAPAINDEGIA
 - Erabiltzaileak %2,4ko KPI+ BEZ (%13)
 - Besteak %3,4ko KPI+ BEZ (%13)
- TABERNA, alkoholdun gabeko produktuak
 - Erabiltzaileak %2,4ko KPI+ BEZ (%2)
 - Besteak %3,4ko KPI+ BEZ (%2)
- TABERNA, alkoholdun produktuak
 - Erabiltzaileak %2,4ko KPI+ BEZ (%3)
 - Besteak %3,4ko KPI+ BEZ (%3)

3. AUZIAK

(Contenciosos administrativos)

En el apartado anterior hemos informado de la situación económica que atraviesa este ayuntamiento, pero no sería del todo completo si asimismo no informáramos de los contenciosos administrativos que existen desde la legislatura anterior.

CAMBIO EN EL PROYECTO DE URBANIZACIÓN DE AGERRETXE

- **Antecedentes**

Se refiere a la comunicación a la calle Mogel desde Agerretxe que en un principio se había proyectado hacerla por medio de un sistema funicular y que finalmente se realizó, como mejor solución, por medio del ascensor actualmente en uso.

Esta actuación generó dos contenciosos que han sido resueltos recientemente.

- 1.- El contencioso administrativo RCA 217/04 interpuesto por vecinos de Agerretxe. La sentencia correspondiente obliga a este ayuntamiento al pago de 9.754,66€.
